

PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK

Gazteei espresuki zuzenduriko ikastaroak dira, 18-30 urte bitartekoei hain zuzen ere. Laborategien eskaintza aurretik aipatutako adin tarteari zuzendurik badago ere, 30 urtetik gorako pertsonak parte hartzeko aukera izango dute, euren partaidetzaren egokitasuna balioztatuz gero eta plaza libreak egonez gero.

Ikastaro bakoitzeko plaza kopurua mugatua da. Jasotako izen emateak, eskainitako plazak baino gehiago baldin badira, hauek izango dira jarraituko diren lehentasunak:

- 1) Donostian errolatutako 18-30 urte bitarteko gazteak, eta hauen artean hurrenkera izango da kontutan.
- 2) Donostian errolatuta ez dauden 18-30 urte bitarteko gazteak: hauen artean izen ematearen hurrenkera hartuko da kontutan parte hartzaile zerrenda osatu ahal izateko.

Ikastaroak aurrera ateratzeko, gutxieneko izen emate kopuru bat egon beharko da (eskainitako plaza kopuruaren %60a), bestela ikastaroa bertan behera geldituko da.

Hautatuen behin betiko zerrenda osatzen denean, Kontadoresetik banan-bana jakinaraziko zaie zuzenean pertsona hautatuei, eta baita kanpo gelditu diren horiei ere.

Bi saio baina gehiagoko ikastaroaren lehen bi egunetan zehar, ikasleren batek baja emango balu, itxaron zerrendara joko da, eta ikasle berri batek parte hartzeko aukera izango du; azken honek matrikularen kopuruaren ordainketa osoa egin beharko du.

Arazoien batengatik, arreta berezia behar duten pertsonak, izena ematean hori jakinarazteko eskatzen zaie; hartara ikusi ahal izango da ea ikastaroaren irakasleak edota Kontadores zentroak berak zein neurritan eman diezaiekeen erantzun egokia behar horiei.

MATRIKULAZIO ARAUAK

Matrikularen ordainketa, esku dirutan egin beharko da Kontadores-en bertan, ikastaroaren hasiera egunean.

Matrikulazioaren dirua ez da itzuliko, salbu bi saio baina gehiagoko ikastaroaren lehenengo 2 egunetan zehar, lana, gaixotasuna edo/eta frogatutako arazoak direla eta ikastaroa derrigorrez bertan behera utzi behar denean, kasuak kasu aztertuko dira eta diruaren itzulera baloratuko da.

Aurreikusitako epeetan ordainketa burutzen ez baldin bada, matrikulazioa bertan behera geratuko da, eta izena eman duen pertsonak ezingo du ikastaroan parte hartu.